2. El pago de la multa podrá realizarse mediante giro postal o transferencia bancaria a la c/c nº 2097 0150 90 0010904458 titularidad de la Diputación Foral de Álava, indicando el número de expediente, la matrícula y la fecha de la denuncia.

Vitoria-Gasteiz, 21 de febrero de 2008.– Jefa del Servicio de Transportes, ANA MARIA ARRIETA NAVARIDAS.

**HERRILAN ETA GARRAIO SAILA**

GARRAIO ZERBITZUA

*Arabako Garraioaren Arbitraje Batzarra***1212****3/2008-8 disputaren ahozko ikustaldiaren jakinarazpena**

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/92 Legeak 59.4 artikuluan xedatutakoarekin bat etorri Juan José Valderrama Heras jaunari –El Campo, 6. Turiso (Araba)– jakinarazpena egiten saiatu arren, lortu ez denez gero, iragarki honen bidez jakinarazten zaio.

Arabako Garraioaren Arbitraje Batzorde honetan Francisco Javier Montoya González jaunaren erreklamazio bat jaso da zure aurka.

LGAAREN 9.3 artikulua xedatutakoarekin bat etorri, erreklamazio horren eta aurkeztutako dokumentazioaren fotokopia bidaltzen dizugu.

Erreklamazio horri buruzko AHOZKO IKUSTALDIA 2008ko martxoaren 11n 11:00etan izango da Arbitraje Batzar honen egoitzan (Arabako Foru Aldundiaren Jauregiaren beheko solairua. Probintzia plaza, zk.g. Vitoria-Gasteiz). Bertan, egoki deritezun alegazioak eta probak aurkeztu ahal izango dituzu.

Ekitaldi horretara zu zeu aurkez zaitezke edo aukera hori beste pertsona bati ordezkartzan eman Arbitraje Batzar honi zuzendutako idazki baten bidez. Bertaratzen ez bazara ere, IKUSTALDIA egin egingo da eta dagokion laudoa emango.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko otsailaren 21a.– Garraio Zerbitzuaren burua eta Arbitraje Batzarreko lehendakaria, ANA MARÍA ARRIETA NAVARIDAS.

**HERRILAN ETA GARRAIO SAILA**

GARRAIO ZERBITZUA

**1217****Unibertsitate garraioa dela eta, 2006/2007 ikasturteari dago-kion dirulaguntza jasotzeko, beste laguntza edo beka batzuei buruzko agiriak aurkezteko eskatzen duen iragarkia.**

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/92 Legeak 59.5 artikuluan xedatutakoarekin bat etorri, M<sup>a</sup> Violeta Barbera Asunción andreari –Paraguay kalea, 12-2. A. 01012, Vitoria-Gasteiz- eta Noelia Arbosa Pérez andreari –Landaberde kalea, 28-1. A. 01010, Vitoria-Gasteiz– jakinarazpena egiten saiatu arren lortu ez denez gero, iragarki honen bidez egiten zaie.

Unibertsitate garraiorako dirulaguntza eskaera dela eta, zuk garraioa dela-eta beste laguntza batzuk jaso zenituela adierazi zenuen. Laugarren oinarri-arauaren bosgarren paragrafoan xedatzen du: “Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da izango, inolaz ere, bakarrik edo beste laguntza edo dirulaguntza batekin batuta 2006-2007 ikasturtean diruz lagundutako zerbitzuaren onuradunek ordaindutako zenbateko osoa baino handiagoa”.

Laguntza publikoen metaketak finantzatu beharrekoa baino gehiago ez duela egiten egiaztatzeko eta horrelakorik saihesteko, beste laguntza batzuk ematen zaizkizula jakinarazten dizuten agirien kopia aurkezteko eskatzen zaizu. Agiri horiek laguntza ematen dizun erakundearen izena (Eusko Jaurlaritza...) eta laguntzaren zenbatekoa adieraziko dute.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 71. artikuluan xedatutakoarekin bat etorri, jakinarazpen hau jasotzen duzunetik aurrera egun dituzu eskatutako agiriak aurkezteko Garraio Zerbitzuan. Horrela egin ezean, eskaerari uko egiten diozula esan nahiko du.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko otsailaren 21a.– Garraio Zerbitzuaren burua, ANA MARÍA ARRIETA NAVARIDAS.

**DEPARTAMENTO DE OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES**

SERVICIO DE TRANSPORTES

*Junta Arbitral del Transporte de Álava***1212****Notificación de Vista Oral de la controversia 3/2008-8**

De conformidad con lo dispuesto en el art. 59.4 de la Ley 30/92, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, intentada la notificación a D. Juan José Valderrama Heras, C/ El Campo, n° 6 de Turiso (Álava), sin que se haya podido practicar, se realiza la notificación mediante este anuncio.

Se ha recibido en esta Junta Arbitral del Transporte de Álava, reclamación de D. Francisco Javier Montoya González contra usted

De conformidad con lo dispuesto en el art. 9.3 del ROTT, adjunto se remite fotocopia de la reclamación y de la documentación aportada.

La VISTA ORAL relativa a dicha reclamación, tendrá lugar el día 11 de marzo de 2008, a las 11:00 horas, en el domicilio de esta Junta Arbitral sito en la planta baja de la Casa-Palacio de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia s/n de Vitoria-Gasteiz, y en ella podrá alegar lo que a su derecho convenga y aportar o proponer las pruebas que estime pertinentes.

A dicho acto podrá acudir personalmente, o por representación conferida a otra persona, mediante escrito dirigido a esta Junta Arbitral, advirtiéndole que su incomparecencia a la VISTA ORAL no impedirá la celebración de la misma y el dictado del laudo correspondiente.

En Vitoria-Gasteiz, a 21 de febrero de 2008.– Jefa del Servicio de Transportes y Presidenta de la Junta Arbitral, ANA MARÍA ARRIETA NAVARIDAS.

**DEPARTAMENTO DE OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES**

SERVICIO DE TRANSPORTES

**1217****Anuncio por el que se le requiere documentación de otras ayudas o becas para poder recibir la subvención del Transporte Universitario del curso 2006/2007.**

De conformidad con lo dispuesto en el art. 59.5 de la Ley 30/92, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, intentada la notificación a D<sup>a</sup>. M<sup>a</sup> Violeta Barbera Asunción, C/ Paraguay, 12-2º A, 01012-Vitoria-Gasteiz, y a D<sup>a</sup>. Noelia Arbosa Pérez, C/ Landaberde, 28-1º A, 01010-Vitoria-Gasteiz sin que se haya podido practicar, se realiza la notificación mediante este anuncio.

En su solicitud de subvención de transporte universitario, usted declaró haber recibido otras ayudas al transporte. El apartado Quinto, número 4 de las bases reguladoras establece que “en ningún caso la subvención podrá ser de cuantía tal que, aisladamente o en concurrencia con otras ayudas o subvenciones, supere el total del importe abonado por los beneficiarios por el servicio objeto de esta subvención durante el curso académico 2006/2007”.

Para comprobar y evitar que la acumulación de ayudas públicas dé lugar a sobrefinanciación, se le requiere que aporte copia del documento donde se le notifique la concesión de esas otras ayudas, con expresión de la entidad concedente (Gobierno Vasco u otras) y el importe de ayuda recibido.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 71 de la ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, dispone usted de un plazo de diez días a partir de la recepción de la presente notificación para aportar la documentación requerida en este Servicio de Transportes, teniéndole por desistido en su solicitud en caso de no hacerlo en el citado plazo.

En Vitoria-Gasteiz, a 21 de febrero de 2008.– Jefa del Servicio de Transportes, ANA MARÍA ARRIETA NAVARIDAS.



## HERRILAN ETA GARRAIO SAILA

1228

**“Beotegiko, Menagaraiko eta Kexaako horniketa aldatzeko Proiektuak” eragindako ondasun eta eskubideen zerrendaren informazio publikoa.**

2007ko abenduaren 4ko Diputatuen Kontseiluaren 1105 Erabakiaren bidez “Beotegiko, Menagaraiko eta Kexaako horniketa aldatzeko Proiektuak” eragindako ondasun eta eskubideen zerrendari hasierako onarpena eman zaio.

Hori dela eta, indarrean dagoen Nahitaezko Desjabetzapenaren Legearen 17. eta 18. artikuluetan eta lege hori garatzen duen arautegiaren 17. artikuluan ezarritakoaren babespean, esandako zerrenda informazio publikoan jarriko da 15 laneguneko epean, iragarki hau argitaratu ondorengo egunetik kontatzen hasita.

Epe horren barruan, argitaratutako zerrendan izan litezkeen akatsak zuzentzeko datu egokiak idatziz aurkeztu ahal izango ditu edonork, edo okupatu beharrendaren aurka ere agertu ahal izango da, funtseko nahiz formako arrazoiengatik. Azken kasu honetan, adierazi behar du zergatik jotzen duen egokiagotzat, lortu nahi den helbururako, azaldutako zerrendan jasotzen ez diren beste ondasun batzuk okupatzea edo beste eskubide batzuk eskuratzea.

Interesaturik dauden erakunde, entitate, korporazio nahiz partikularrek eskuragarri dituzte lursailen planoak eta eragindako tituluaren zerrenda Aiaraiko Udaletxeko iragarki taulan, horiek aztertu eta, bidezko izanez gero, alegazioak egin ahal izateko. Alegazioak, ezarritako epearen barruan aurkeztu behar dituzte, ale bikoitzez, Foru Aldundi honetako Erregistro Orokorrean, bulego orduetan, Herrilan eta Garraio Sailaren Lege eta Administrazio Zerbitzuari zuzenduta (Probintzia Plaza, 5 - 1. solairua, Vitoria-Gasteiz.)

## DEPARTAMENTO DE OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES

1228

**Información pública de la relación de los bienes y derechos afectados por el “Proyecto de modificación del abastecimiento a Beotegui, Menagaray y Quejana”.**

Mediante Acuerdo 1105, del Consejo de Diputados celebrado el 4 de diciembre de 2007, se ha dispuesto aprobar inicialmente la relación de bienes y derechos afectados por el “Proyecto de modificación del abastecimiento a Beotegui, Menagaray y Quejana”

En su virtud, y al amparo de lo dispuesto en los artículos 17 y 18 de la vigente Ley de Expropiación Forzosa y el artículo 17 del Reglamento que la desarrolla, se somete la citada relación a Información Pública por un plazo de 15 días hábiles, a contar desde el día siguiente a la publicación del presente anuncio.

Durante dicho plazo cualquier persona podrá aportar por escrito los datos oportunos para rectificar posibles errores en la relación publicada u oponerse, por razones de fondo o de forma, a la necesidad de ocupación. En este caso indicará los motivos por los que considere preferente la ocupación de otros bienes o adquisición de otros derechos distintos y no comprendidos en la relación, como más convenientes al fin que se persigue.

Los Organismos, Entidades, Corporaciones y particulares que resulten interesados tienen a su disposición los planos parcelarios y la relación de afectados en el tablón de edictos municipales del Ayuntamiento de Ayala, a los efectos de poder examinarlos y si procede formular las alegaciones pertinentes, que deberán presentar por ejemplar duplicado dentro del plazo previsto, en el registro general de esta Diputación Foral, dirigidas al Departamento de Obras Públicas y Transportes, Servicio Jurídico Administrativo, sito en la Plaza de la Provincia, nº 5-1ª Planta, Vitoria-Gasteiz, durante las horas de oficina.

**BEOTEGIKO, MENAGARAIKO ETA KEXAAKO HORNIKETA ALDATZEKO PROIEKTUA  
PROYECTO DE MODIFICACIÓN DEL ABASTECIMIENTO A BEOTEGUI, MENAGARAY Y QUEJANA**

Expte. 08/14

FINKAREN ZK.	TITULARRAREN IZENA	KATASTROKO DATUAK				ERAGINDAKO AZALERA		
		POLIGONOA	LURZATIA	UDALA	PROBETXAMENDU	BEHIN-BETIKO OKUPAZIOA (m <sup>2</sup> )	BEHIN-BEHINEKO OKUPAZIOA (10 M <sup>2</sup> /ML) (5 m.ardatzaren alde banatan)	ADUEDUKTUKO MEMPEKOTASUNA (5 M <sup>2</sup> /ML) (2,5 m. ardatzaren alde banatan)
DATOS CATASTRALES						SUPERFICIE AFECTADA		
Nº FINCA	NOMBRE DEL PROPIETARIO	POLÍGONO	PARCELA	AYUNTAMIENTO	APROVECHAMIENTO	OCUPACIÓN DEFINITIVA (m <sup>2</sup> )	OCUPACIÓN TEMPORAL (10 M <sup>2</sup> /ML) (5 m. a cada lado del eje)	SERVIDUMBRE DE ACUEDUCTO (5 M <sup>2</sup> /ML) (2,5 m. a cada lado del eje)
1	Eguía Basualdo, Francisco	6	1255	Aiara/Ayala	Lehorreko laborea /Cereal seco	2	2942	1471
2	Acha Gutiérrez, J.María							
	Acha Gutiérrez, J.Luis	6	1709	Aiara/Ayala	Lehorreko laborea /Cereal seco		1075	537
3	Acha Gutiérrez, J.María							
	Acha Gutiérrez, J.Luis	6	2348	Aiara/Ayala	Lehorreko laborea /Cereal seco	12	4415	2207
4	Canibe Berganza, Fermín	6	1022	Aiara/Ayala	Basobera/Monte bajo		454	227
5	Eguía Basualdo, Francisco	6	1246	Aiara/Ayala	Lehorreko laborea /Cereal seco		386	193
6	Luengas Erze, Angel	6	1252	Aiara/Ayala	Basobera/Monte bajo	2	3031	1515
7	Canibe Berganza, Fermín	6	1267	Aiara/Ayala	Lehorreko laborea /Cereal seco		576	288
8	Canibe Berganza, Fermín	6	1258	Aiara/Ayala	Etze-larrea/Erial a pastos	2	1177	588
9	Canibe Berganza, Fermín	6	1233	Aiara/Ayala	Lehorreko laborea /Cereal seco	2	2410	1205
10	Canibe Berganza, Fermín	6	1234	Aiara/Ayala	Lehorreko laborea /Cereal seco		107	53
11	Canibe Berganza, Fermín	6	1264	Aiara/Ayala	Lehorreko laborea Cereal seco		596	298
12	Canibe Berganza, Fermín	6	1263	Aiara/Ayala	Lehorreko laborea /Cereal seco		178	89
13	Canibe Berganza, Fermín	6	1079	Aiara/Ayala	Etze-larrea/Erial a pastos		198	99
14	Canibe Berganza, Fermín	6	1262	Aiara/Ayala	Lehorreko laborea /Cereal seco		157	79
15	Canibe Berganza, Fermín	6	1110	Aiara/Ayala	Lehorreko laborea /Cereal seco	2	950	475
16	Canibe Berganza, Fermín	6	1149	Aiara/Ayala	Lehorreko laborea /Cereal seco		870	435
17	Canibe Berganza, Fermín	6	1260	Aiara/Ayala	Basobera/Monte bajo	2	970	485
18	Canibe Berganza, Fermín	6	1131	Aiara/Ayala	Basobera/Monte bajo		596	298
19	Canibe Berganza, Fermín	6	1133	Aiara/Ayala	Basobera/Monte bajo		692	346
20	Canibe Berganza, Fermín	6	1136	Aiara/Ayala	Baso garaia/Monte alto		455	227
21	Isla Velasco, J.Ramón	6	208	Aiara/Ayala	Basobera/Monte bajo	4	2709	1354
22	Kexaako Batzordea/ Junta Administrativa de Quejana	6	76	Aiara/Ayala	Basobera/Monte bajo	10		
23	Gasteizko Gotzaindegia/ Obispado de Vitoria	6	459	Aiara/Ayala	Basobera/Monte bajo	599,80		
24	Aresketa Mendi S.L.	6	195	Aiara/Ayala	Basobera/Monte bajo	2	1610	805
25	Valdivieso De Cue, Jaime	6	197	Aiara/Ayala	Basobera/Monte bajo		2169	1085
26	Valdivieso De Cue, Jaime	6	198	Aiara/Ayala	Basobera/Monte bajo	2	908	454

TITULO  
TITULO

FINKAREN ZK.	TITULARRAREN IZENA ETA HELBIDEA	KATASTROKO DATUAK				UDALA	PROBETXAMENDU	ERAGINDAKO AZALERA M <sup>2</sup>		
		POLIGONOA	ETXADI	LURSAILA				BEHIN-BETIKOIA	BEHIN-BEHINEKOIA	ZORTASUNA
Nº FINCA	NOMBRE Y DOMICILIO DEL PROPIETARIO	DATOS CATASTRALES			AYUNTAMIENTO	APROVECHAMIENTO	SUPERFICIE AFECTADA M <sup>2</sup>			
		POLÍGONO	MANZANA	PARCELA			DEFINITIVA	TEMPORAL	SERVIDUMBRE PASO	
15	Fermin Canive Berganza	6		1110	Ayala	C.S.	2,00m <sup>2</sup>	950,35m <sup>2</sup>	475,18m <sup>2</sup>	
16	Fermin Canive Berganza	6		1149	Ayala	C.S.		870,45m <sup>2</sup>	435,23m <sup>2</sup>	
17	Fermin Canive Berganza	6		1260	Ayala	M.B.	2,00m <sup>2</sup>	970,09m <sup>2</sup>	485,05m <sup>2</sup>	
18	Fermin Canive Berganza	6		1131	Ayala	M.B.		596,30m <sup>2</sup>	298,15m <sup>2</sup>	
19	Fermin Canive Berganza	6		1133	Ayala	M.B.		691,84m <sup>2</sup>	345,92m <sup>2</sup>	
20	Fermin Canive Berganza	6		1136	Ayala	M.A.		454,76m <sup>2</sup>	227,38m <sup>2</sup>	
21	J.Ramón Isla Velasco	6		0208	Ayala	M.B.		554,07m <sup>2</sup>	277,04m <sup>2</sup>	
22	Junta Administrativa de Quejana	6		0076	Ayala	M.B.	10,00m <sup>2</sup>			
23	Obispado de Vitoria	6		0459	Ayala	M.B.	599,80m <sup>2</sup>			

Gasteiz, 2008ko otsailaren 21ean.– Herrilan eta Garraio Zuzendaria, EMILIO DE FRANCISCO UGARTONDO.

## INGURUMEN SAILA

1184

“Rivabellosako eskualdeko hondakin uren araztegiko proiektuko (I. fasea: proiektua idaztea; II. fasea: obrak egitea eta berme garaian haren ustiaketa)” izeneko lanak esleitzea.

## 1. ERAKUNDE ESLEITZAILEA.

a) Erakundea: Arabako Foru Aldundia. Ingurumen Saila. Ingurumen Zuzendaritza. Ur Zerbitzua.

b) Espedientea izapidetzen duen bulegoa: Ingurumeneko Idazkaritza Teknikoa.

c) Espedientearen zenbakia: 07/42

## 2. KONTRATUAREN HELBURUA.

a) Kontratu mota: lanak.

b) Azalpena: “Rivabellosako eskualdeko hondakin uren araztegiko proiektuko (I. fasea: proiektua idaztea; II. fasea: obrak egitea eta berme garaian haren ustiaketa)”

c) Lizitaziorako iragarkia argitaratu zen aldizkari ofiziala eta eguna: 2007ko azaroaren 23ko Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala (138. zenbakia). Iragarki zenbakia: 07/7861.

## 3. IZAPIDEAK, PROZEDURA ETA ESLEITZEKO ERA.

a) Izapidea: ohikoa.

b) Prozedura: irekia.

c) Esleitzeko era: lehiaketa.

4. LIZITAZIORAKO OINARRIZKO AURREKONTUA. 3.624.339,52 euro (BEZa barne).

## 5. ESLEIPENA.

a) Eguna: 2008ko otsailaren 19a.

b) Kontratista: Initek Ingenieros S. L.

Madariaga etorbidea 77

48014 Bilbao.

IFZ: B-48540538.

c) Nazionalitatea: espainiarra.

d) Esleipenaren zenbatekoa: Proiektua idaztea: 22.000,00 euro BEZa barne; lanak egitea: 3.053.394,21 euro, honelaxe banatuko da:

I. fasea, 2008	22.000,00 €
II. fasea, 2008	2.522.369,13 €
II. fasea, 2009	531.025,08 €

e) Esleipenari buruzko ebazpena: Otsailaren 19ko Diputatuen Kontseiluaren 88/08 Erabakia.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko otsailaren 20a.– Ingurumen Saileko diputatua, MIKEL MINTEGI AREITIOAURTENA.

Vitoria-Gasteiz, a 21 de febrero de 2008.– El Director de Obras Públicas y Transportes, EMILIO DE FRANCISCO UGARTONDO.

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE

1184

Adjudicación de las obras del “Proyecto y Construcción de la Edar Comarcal de Rivabellosa. fase I: “Redacción del Proyecto”, fase II “Ejecución de las obras y explotación durante el periodo de garantía”.

## 1. ENTIDAD ADJUDICADORA.

a) Organismo: Diputación Foral de Álava. Departamento de Medio Ambiente. Dirección de Medio Ambiente. Servicio de Aguas

b) Dependencia que tramita el expediente: Secretaría Técnica de Medio Ambiente.

c) Número de expediente: 07/42

## 2. OBJETO DEL CONTRATO.

a) Tipo de contrato: Obras

b) Descripción del objeto: Proyecto y Construcción de la Edar Comarcal de Rivabellosa. fase I: “Redacción del Proyecto”, fase II “Ejecución de las obras y explotación durante el periodo de garantía”

c) Boletín o Diario Oficial y fecha de publicación del anuncio de licitación: Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava número 138 de 23 de noviembre de 2007 con el nº de anuncio 07/7861

## 3. TRAMITACIÓN, PROCEDIMIENTO Y FORMA DE ADJUDICACIÓN.

a) Tramitación: Ordinaria.

b) Procedimiento: Abierto.

c) Forma: Concurso.

4. PRESUPUESTO BASE DE LICITACIÓN. 3.624.339,52 € (IVA incluido)

## 5. ADJUDICACIÓN.

a) Fecha: 19 de febrero de 2008.

b) Contratista: Initek Ingenieros S.L.

c/ Avda. Madariaga, 77

48014 Bilbao

N.I.F. B-48540538

c) Nacionalidad: Española.

d) Importe de adjudicación: 22.000,00 € para la redacción del proyecto (I.V.A. incluido) y 3.053.394,21 € (IVA incluido), para la ejecución de las obras, consignado de la siguiente forma:

Fase I Año 2008	22.000,00 €
Fase II Año 2008	2.522.369,13 €
Fase II Año 2009	531.025,08 €

e) Resolución de adjudicación: Acuerdo del Consejo de Diputados 88/08 de 19 de febrero.

Vitoria-Gasteiz, 20 de febrero de 2008.– El Diputado Foral del Departamento de Medio Ambiente, MIKEL MINTEGI AREITIOAURTENA.

## GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

1213

**Lehiaketa publikoa: larrialdi egoerarako hezkuntza laguntzako zerbitzua kontratatzea Geroa Etxea - adingabeak egunez artatzeko zentrorako.**

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak lehiaketa publikoa iragartzen du, prozedura irekiaren eta ohiko izapidetzearen bitartez larrialdi egoerarako hezkuntza laguntzako zerbitzua kontratatzeko, Geroa Etxea - adingabeak egunez artatzeko zentrorako.

1. Kontratuaren helburua: adierazitakoa.

2. Kontratuaren zenbatekoa: El importe estimado máximo anual es de 21.226,80 euros (IVA incluido), siendo la duración del contrato de dos años.

3. Bermea: ez da behin-behineko fidantzarik eskatzen. Behin betikoa: 1.698,14 euro.

4. Baldintzen agiria: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen bulegoetan: Álava Jeneralaren kalea, 10 - 5. solairua, 3. bulegoa), Vitoria-Gasteiz. Orduetgia: 9:00etatik 14:00etara, astelehenetik ostiralera bitartean.

5. Eskabideak aurkezteko epea eta lekua: eskaerak aurkezteko 15 egun egongo dira, iragarki hau argitaratzen denetik aurrera, eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen bulegoetan aurkeztuko dira, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00ak arte.

6. Eskaintzak irekitzea: erakundearen bulegoetan, eskabideak aurkezteko epea bukatu ondorengo hirugarren egun balioduneko (larunbata ez da balioduna) 12:00etan. Irekitze ekitaldira norahi joan daiteke.

7. Eskaintza eredia: Administrazio klausulen agiriaren eranskinean adierazitakoa.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko otsailaren 21a.- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zuzendari kudeatzailea, LUIS FELIPE OCHANDIANO GREDILLA.

## INSTITUTO FORAL DE BIENESTAR SOCIAL

1213

**Concurso público para la contratación del servicio de apoyo educativo en situaciones de emergencia para el Hogar Geroa - Centro de Atención a Menores de Edad.**

El Instituto Foral de Bienestar Social anuncia concurso público, mediante procedimiento abierto y trámite ordinario, para la contratación del servicio de apoyo educativo en situaciones de emergencia para el Hogar Geroa - Centro de Atención a Menores de Edad.

1. Objeto del Contrato: El que queda señalado.

2. Importe del Contrato: El importe estimado máximo anual es de 21.226,80 euros (IVA incluido), siendo la duración del contrato de dos años.

3. Garantía: No se requiere fianza provisional siendo la definitiva de 1.698,14 euros.

4. Pliegos de Condiciones: En las oficinas del Instituto Foral de Bienestar Social, sitas en la calle General Álava nº 10-5º Dpto. 3, de Vitoria-Gasteiz, de 9 a 14 horas de lunes a viernes.

5. Plazo y lugar de presentación de solicitudes: 15 días naturales a partir de la publicación de este anuncio, en las oficinas del Instituto Foral de Bienestar Social, de 9 a 14 horas de lunes a viernes.

6. Apertura de Pliegos: En las oficinas del Instituto, a las 12 horas del tercer día hábil siguiente al vencimiento del plazo de presentación de las mismas y en acto público (sábado inhábil).

7. Modelo de Proposición: El que figura en el anexo del Pliego de Cláusulas Administrativas.

En Vitoria-Gasteiz, a 21 de febrero de 2008.- El Director Gerente del Instituto Foral de Bienestar Social, LUIS FELIPE OCHANDIANO GREDILLA.



## ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## ADMINISTRACIÓN LOCAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA



## Udalak

## ARAMAIO

1193

**16/2007 kreditu gehigarriaren espedientea behin betiko onartzea.**

Otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorritz, eta 16/2007 kreditu gehigarriaren espedientearen hasierako onarpenaren aurka erreklamaziorik edo oharririk aurkeztu ez denez gero, espediente hori behin betiko onartu da. Hona hemen xehatuta:

Engungo aurrekontuan handitu egin nahi diren gastuen zerrenda. Hona hemen handitutako aurrekontu partida:

GASTU PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA
120.160.004	ELKARKIDETZA	135,12€
120.211.002	UDALETXEKO KONPONKETAK ETA MANTENIMENDUA	666,00 €
120.215.001	FOTOKOPIADOREEN MANTENIMENDUA	162,06€
120.220.000	BULEGOKO MATERIALA	1.117,28 €
120.222.002	KORREOSEKO GASTUAK	121,28€
120.226.040	AHOLKULARITZA JURIDIKOA	4.584,12 €
120.227.001	UDALAREN GARBITASUNA	5.366,65€
120.227.020	PREBENTZIORAKO MATERIALA	435,23€
120.609.000	IRISGARRITASUN PLANA GARATZEKO PROIEKTUA	9.280,00 €
313.226.006	JUBILATUEN EGUNA	395,27€
420.221.003	ESKOLAKO GASA	4.603,34 €
431.210.000	GAZTETXEKO KONPONKETA LANAK	1.044,00€

## Municipios

## ARAMAIO

1193

**Aprobación definitiva del expediente de Crédito Adicional nº 16/2007.**

De conformidad con lo dispuesto en la Norma Foral 3/2004 de 9 de febrero y no habiéndose formulado reclamaciones ni observaciones de ningún tipo contra el acuerdo de aprobación inicial del Expediente de Crédito Adicional número 16/2007, dicho expediente queda definitivamente aprobado, en la forma siguiente:

Relación de gastos que se pretende incrementar en el Presupuesto vigente, en las partidas presupuestarias que se detallan:

PARTIDA DE GASTOS	DENOMINACIÓN	IMPORTE
120.160.004	ELKARKIDETZA	135,12€
120.211.002	UDALETXEKO KONPONKETAK ETA MANTENIMENDUA	666,00 €
120.215.001	FOTOKOPIADOREEN MANTENIMENDUA	162,06€
120.220.000	BULEGOKO MATERIALA	1.117,28 €
120.222.002	KORREOSEKO GASTUAK	121,28€
120.226.040	AHOLKULARITZA JURIDIKOA	4.584,12 €
120.227.001	UDALAREN GARBITASUNA	5.366,65€
120.227.020	PREBENTZIORAKO MATERIALA	435,23€
120.609.000	IRISGARRITASUN PLANA GARATZEKO PROIEKTUA	9.280,00 €
313.226.006	JUBILATUEN EGUNA	395,27€
420.221.003	ESKOLAKO GASA	4.603,34 €
431.210.000	GAZTETXEKO KONPONKETA LANAK	1.044,00€

GASTU PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA
432.210.001	AUZOLANAK	1.435,62 €
432.421.001	ARKITEKTOAREN SOLDATA	1.003,97 €
442.410.002	CRISPIJANARA HONDARRAK ERAMATEA	479,19€
451.226.068	EUSKARAZKO KOMUNIKABIDEAK BULTZATU	3.697,90€
730.601.001	BARAJUEN AUZOKO TENTSIO ALTUKO LINEAREN INSTALAKUNTZA ALDATU	34.841,02 €
533.226.990	LANDAREAK : ARTEA, PINUA	585,00€
<b>GASTUEN ALDAKETAREN ZENBATEKOA GUZTIRA</b>		<b>69.953,05€</b>

Gastuok ondoko partida hauetatik ordainduko dira. Horiek horrela, espedientearekin batera ageri da, hau da, defizit gabe.

DIRU SARREREN PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA
870.01	DIRUZAINZAKO GERAKINA	69.953,05€
<b>DIRU SARRERETAN IZANDAKO GORAKADA GUZTIRA</b>		<b>69.953,05€</b>

Espedientearekin batera finantzatzeko duten baliabideen zenbatekoa 69.953,05 euro da guztira.

Udal honetako 16/2007 kreditu gehigarria behin betiko onartzen duen erabakiaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian. Horretarako bi hilabete izango dira iragarki hau argitaratzen denetik aurrera.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Aramaio, 2008ko otsailaren 20a.- Aramaioko alkate lehendakaria, ASIER AGIRRE MUGARZA.

## BURGELU

1209

### Hutsen zuzenketa

Burgelun erabilera askotarako polikiroldegia eraikitzeko obren lizitazioari buruzko iragarkia 2008ko otsailaren 20an argitaratu zen. Iragarki horretan huts bat egin zenez gero, zuzendu egiten da ondoren. Horiek horrela, 9. puntuak, esaten zuenaren orde, ondokoa esan behar du:

9.- Eskaintzak irekitzea: Burgeluko udaletxean, eskaintzak aurkezteko epea bukatu ondorengo zortzigarren egun balioduneko 13:00etan.

Burgelu, 2008ko otsailaren 21a.- Alkatea, NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN.

## IRUÑA OKA

1205

### Udalerriko plazan egin beharreko lanak esleitzea

Udalbatzak, 2008ko otsailaren 13an balio osoz egindako osoko bilkuran, Langraiz Okako plazako obren kontratua UTEKI SA/ASFALTOS NATURALES DE CAMPEZO SA aldi baterako enpresa elkarteari esleitu zion 710.250,00 euroan.

Herri Administrazioaren Kontratueterako Legearen Testu Bateratuak 93. artikuluan xedatutakoa betez ematen da horren berri.

Iruña Oka, bi mila eta zortziko otsailaren hogeia.- Alkate-lehendakaria, JOSÉ JAVIER MARTINEZ GARCÍA.

## KUARTANGO

1192

### Trakzio Mekaniko Ibilgailuen gaineko Zerga kobratzea

Iragarki hau argitaratu ondorengo hamabost egunetan jendarean jarriko da Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga ordaindu behar dutenen 2008ko errolda, interesdunek aztertu eta egoki deritzeten oharrak aurkeztu ahal izan ditzaten.

PARTIDA DE GASTOS	DENOMINACIÓN	IMPORTE
432.210.001	AUZOLANAK	1.435,62 €
432.421.001	ARKITEKTOAREN SOLDATA	1.003,97 €
442.410.002	CRISPIJANARA HONDARRAK ERAMATEA	479,19€
451.226.068	EUSKARAZKO KOMUNIKABIDEAK BULTZATU	3.697,90€
730.601.001	BARAJUEN AUZOKO TENTSIO ALTUKO LINEAREN INSTALAKUNTZA ALDATU	34.841,02 €
533.226.990	LANDAREAK : ARTEA, PINUA	585,00€
<b>IMPORTE TOTAL DE LA MODIFICACIÓN DE GASTOS</b>		<b>69.953,05€</b>

El anterior importe queda financiado por los recursos que a continuación se relacionan, de forma que el expediente se presenta nivelado y sin que se produzca déficit:

PARTIDA DE INGRESOS	DENOMINACIÓN	IMPORTE
870.01	REMANENTE DE TESORERIA	69.953,05€
<b>IMPORTE TOTAL DE AUMENTOS EN INGRESOS</b>		<b>69.953,05€</b>

La suma total de los recursos que han de financiar el expediente ascienden a 69.953,05 euros

Contra el presente acuerdo de aprobación definitiva del Crédito Adicional 16/2007 de este Ayuntamiento, podrá interponerse directamente recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses desde la publicación de este anuncio.

Lo que se hace público para general conocimiento.

En Aramaio, a 20 de febrero de 2008.- El Alcalde-Presidente, ASIER AGIRRE MUGARZA.

## ELBURGO

1209

### Corrección de Errores

Advertido error en el anuncio publicado en fecha 20 de febrero de 2008 de licitación de las obras de Construcción de un Edificio Multiusos Polideportivo en el pueblo de Elburgo, se hace constar que el apartado 9 debe quedar de la siguiente forma:

9.- Apertura de Ofertas: En el Ayuntamiento de Elburgo, a las 13 horas del octavo día hábil siguiente al de la finalización del plazo para la presentación de proposiciones.

En Elburgo, a 21 de febrero de 2008.- La Alcaldesa, NATIVIDAD LOPEZ DE MUNAIN.

## IRUÑA DE OCA

1205

### Adjudicación obra plaza municipal

El Pleno de esta Corporación Municipal, en sesión válidamente celebrada con fecha 13 de febrero de 2008 acordó adjudicar el contrato para la ejecución de Plaza Municipal en Nanclares de la Oca a la UTE, UTEKI S.A./ASFALTOS NATURALES DE CAMPEZO S.A. por un importe de 710.250,00 €.

Lo que se hace público, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 93 del Texto Refundido de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.

En Iruña de Oca, a veinte de febrero de dos mil ocho.- El Alcalde-Presidente, JOSE JAVIER MARTINEZ GARCIA.

## KUARTANGO

1192

### Cobro vehículos 2008

Durante el plazo de quince días, contados a partir de la publicación de este anuncio, se encuentra expuesto al público el Padrón del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica, correspondiente al ejercicio 2008, a fin de que quienes estén interesados puedan examinarlo y presentar las observaciones que consideren oportunas.

Ikusgai egongo den 15 egun baliodun horietan Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga ordaindu behar dutenen erroldaren aurkako alegaziorik aurkezten ez bada, tasa hori kobratzen hasiko da udala.

2008ko martxoaren 1etik apirilaren 30era bitarteko egun baliodunetan (biak barne) ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren 2008 ekitaldiko ordainagiriak.

Zergapekoek udal diruzaintzan ordaindu ahal izango dute zerga aipatutako epean goizeko 09:00etatik 14:30ak arte.

Era berean, zergapekoei gogorarazten zaie banku edo aurrezki kutxetan helbideratu ahal izango dutela ordainketa.

Epe hori igarotakoan, ordaindu gabeko kuotak kobratzeko, premiamenduko administrazio-prozedura betearazleari ekingo zaio, eta kobratu beharrekoari % 20 gehituko zaio, halaxe xedatzen baitu Zergabilketarako Arautegi Orokorrak. Errekargu hori eta epearen luzapena bateragarriak dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Zuhatsu-Kuartango, 2008ko otsailaren 14a.– Alkate-lehendakaria, JOSÉ RAMÓN SALAZAR GÓMEZ.

#### OYON-OION

1119

##### 2006ko kontu orokorra jendaurrean jartzea

Bo080218A. Oyón-Oingo Udaleko Kontuen Batzorde Bereziak 2006ko kontu orokorra onartzea erabaki zuen. Horiek horrela, kontu orokor hori jendaurrean jarriko da hamabost egun iragarki hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aurrera, interesdunek egoki deritzeten erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Oyón-Oion, 2008ko otsailaren 18a.– Alkate-lehendakaria, ALBERTO I. ORTEGA.

#### ERRIBERA BEITIA

1165

##### 65/2008 ohiko prozedurara epatzea

Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 47 eta 49.1 artikuluek ezarritakoarekin bat etorritik, interesdunei jakinarazten zaie Julián López Escudero jaunak alkatearen urtarilaren 7ko 2/2008 Ebazpenaren aurka 65/2008 errekurtsio arrunta aurkeztu duela Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako 2 zenbakiko Epaitegian. Ebazpen horrek ezetza ematen zion auzi-jartzaileak egindako eskaerari.

Era berean, interesdunei jakinarazten zaie iragarki hau argitaratzen denetik aurrera 9 egun dituztela, beren eskubideak aldezte aldera, prozeduran agertzeko.

Rivabellosa, 2008ko otsailaren 18a.– Alkatea, PEDRO MONTOYA RUIZ jauna.

#### AGURAIN

1185

##### Interesdunak Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako 1 zenbakiko Epaitegian aztertzen den administrazioarekiko auzi errekurtsora epatzea (865/2007 ohiko prozedura).

Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen Legeak 49.1 artikuluan xedatutakoa betez, 865/2007 administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri eta Vitoria-Gasteizko Adminis-

En caso de no presentarse alegaciones al Padrón del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica, durante el plazo de 15 días hábiles de su exposición, se iniciará el plazo de puesta al cobro.

Que durante los días hábiles comprendidos entre el 01 de Marzo al 30 de Abril de 2008, ambos inclusive, estarán puestos al cobro en período voluntario los recibos referidos al Padrón del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica, correspondientes al ejercicio de 2008.

Los contribuyentes afectados por dicho impuesto podrán realizar el pago en Depositaria Municipal de 9:00 a 14:30 horas durante el plazo señalado.

Así mismo se recuerda que los contribuyentes podrán hacer uso de la domiciliación del pago a través de entidades bancarias o cajas de ahorro.

Transcurrido el indicado período se iniciará el procedimiento ejecutivo de apremio administrativo de conformidad con las disposiciones establecidas en el vigente Reglamento General de Recaudación, procediéndose al cobro de las cuotas que no hayan sido satisfechas con el recargo del 20%, siendo este recargo compatible con el de prórroga.

Lo que se hace público para general conocimiento.

En Zuhatsu-Kuartango, a 14 de febrero de 2008.– El Alcalde-Presidente, JOSÉ RAMÓN SALAZAR GÓMEZ.

#### OYON-OION

1119

##### Exposición pública de la Cuenta General, ejercicio 2006

Bo080218A. La Comisión Especial de Cuentas del Ayuntamiento de Oyón-Oion, ha dictaminado favorablemente la Cuenta General correspondiente al ejercicio de 2006, queda expuesta al público por el plazo de quince días, desde el siguiente al de la inserción de este anuncio en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Alava, para que puedan los interesados presentar las reclamaciones, reparos u observaciones que estimen pertinentes ante la mencionada Comisión.

Oyón-Oion a 18 de febrero de 2008.– El Alcalde-Presidente, ALBERTO I. ORTEGA.

#### RIBERA BAJA

1165

##### Emplazamiento Procedimiento Ordinario 65/2008

De conformidad con lo establecido en los artículos 47 y 49.1 de la Ley de la Jurisdicción Contencioso Administrativa se pone en conocimiento de los interesados, la interposición del Recurso Ordinario nº 65/2008 ante el Juzgado Contencioso Administrativo nº 2 de Vitoria-Gasteiz por parte de Don Julián López Escudero contra la Resolución de Alcaldía nº 2 de 7 de Enero de 2008 denegando la solicitud realizada por el demandante.

Así mismo se emplaza a dichos interesados a fin de que, si a su derecho conviniese, se personen en el plazo de 9 días a contar desde la publicación del presente anuncio, en el referido procedimiento.

Rivabellosa, a 18 de Febrero de 2008.– El Alcalde, D. PEDRO MONTOYA RUIZ.

#### SALVATIERRA

1185

##### Emplazamiento a los interesados en relación con el procedimiento Ordinario 865/2007 seguido en el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo nº 1 de Vitoria-Gasteiz

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 49.1 de la Ley Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, se hace pública la interposición y la remisión del expediente al Juzgado de lo

trazioarekiko Auzietarako 1 zenbakiko Epaitegira bidali dela jakinarazten da. Auzi-errekurtso hori Blanca Bajo Palacios andreak, Urbico 2000 SL enpresaren izenean, aurkeztu zuen Aguraingo Udaleko alkaterearen 2007/10/11ko erabaki baten aurka; erabaki horren bidez, auzi-jartzaileak aurkeztutako berraztertze errekurtsoaren zati bat onesten zen.

Iragarki honen bidez epatu egiten da auzian interesa izan dezakeen oro, autoetara bertaratu eta parte har dezan. Horretarako, bederatzigun egun izango dituzte interesdunek, iragarki hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Agurain, 2008ko otsailaren 18a.– Alkatea, IÑAKI BERAZA ZUFIAUR.

## GAUBEA

1245

### Hutsen zuzenketa

Fresnedan 9 poligonoko 245 katastroko erreferentzia duen lurzatian eguzki plaka fotovoltaikoak instalatzeko jarduera sailkatuari buruzko iragarkia 2008ko otsailaren 8an argitaratu zen Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean (17 zk.). Iragarki horretan huts bat egin zenez gero, zuzendu egiten da ondoren.

Honakoa dioen lekuan: "Horretarako hamabost egun baliodun izango dituzte (...) hurrengo egun baliodunetik aurrera".

Honakoa esan behar du: "Horretarako hogeita hamar egun baliodun izango dituzte (...) hurrengo egun baliodunetik aurrera".

Gaubea, 2008ko otsailaren 20a.– Alkate-lehendakaria, JUAN CARLOS RAMÍREZ-ESCUADERO ISUSI.

## VITORIA-GASTEIZ

HIRIGINTZA-AZPIEGITURAK

1249

### Gasteizko Udalaren obretan segurtasun eta osasun alorretako laguntza teknikoa kontratatze leihaketa.

2008ko otsailaren 15ean onetsi zen 2008/CONAEI0042 zk. duen kontratazio dosierra, Gasteizko Udalaren obretan segurtasun eta osasun alorretako laguntza teknikoa esleitzeko baita.

1. Esleitzen duen erakundea.

a) Erakundea: Gasteizko Udala.

b) Dosiera izapidetuko duena: Hirigintza-Azpiegiturak

c) Dossier zenbakia: 2008/CONAEI0042.

2. Kontratuaren xedea:

a) Xedearen deskribapena: Gasteizko Udalaren obretan segurtasun eta osasun alorretako laguntza teknikoa

b) Gauzatzeko epea: Bi urte.

3. Izapideak, prozedura eta esleitzeko era:

a) Izapideak: arrunta.

b) Prozedura: irekia.

c) Esleitzeko era: lehiaketa.

4. Oinarritzko lehia-saria: zenbatekoa, guztira, 1,00 euro, BEZa barne.

5. Behin-behineko bermea: ez da eskatzen.

6. Agiriak eskuratzea

a) Lekua: ARCO fotokopia-denda –San Antonio kalea, 16; 01005 Gasteiz; tel.: 945-232813 eta 945-140678, faxa: 945-140678–, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 13:30era nahiz 16:00etatik 19:30era bitartean.

b) Agiriak eta argibideak eskuratzeko azken eguna: eskaintzak aurkezteko azken egunera arte.

Contencioso-Administrativo nº 1 de Vitoria-Gasteiz en el procedimiento Ordinario 865/2007 interpuesto por Dña. Blanca Bajo Palacios en representación de Urbico 2000, S.L. contra la Resolución de 11/10/2007 dictada por la Alcaldía del Ayuntamiento de Salvatierra por la que se estima parcialmente el recurso de reposición interpuesto por el demandante.

Se advierte que la publicación de este anuncio sirve de emplazamiento a cuantos aparezcan interesados en el mismo, que pueden comparecer y personarse en los autos en el plazo de nueve días, a contar desde el siguiente al de la publicación de este anuncio en el BOTHA.

En Agurain, a 18 de febrero de 2008.– El Alcalde, IÑAKI BERAZA ZUFIAUR.

## VALDEGOVÍA

1245

### Rectificación de error

Advertido error en el anuncio publicado en el número 17 del BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Alava, de fecha 8 de febrero de 2008, relativo a licencia de Actividad Clasificada para Instalación de Huerta Solar Fotovoltaica en la parcela nº 245 del polígono 9, sita en la localidad de Fresneda, se procede a efectuar la oportuna rectificación:

Donde dice: "dentro del término de quince días contados a partir del siguiente también hábil"

Debe decir: "dentro del término de treinta días contados a partir del siguiente también hábil"

En Valdegovía, a 20 de febrero de 2008.– El Alcalde Presidente, JUAN CARLOS RAMÍREZ-ESCUADERO ISUSI.

## VITORIA-GASTEIZ

URBANISMO-INFRAESTRUCTURAS

1249

### Concurso para asistencia técnica en materia de seguridad y salud de las obras promovidas por el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.

El día 15 de febrero de 2008 se aprobó el expediente de contratación con número 2008/CONAEI0042 de asistencia técnica en materia de seguridad y salud de las obras promovidas por el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.

1. Entidad adjudicataria.

a) Organismo: Ayto Vitoria-Gasteiz.

b) Dependencia que tramita el expediente: Urbanismo-Infraestructuras.

c) Número del expediente: 2008/CONAEI0042.

2. Objeto del contrato.

a) Descripción del objeto: Asistencia técnica en materia de seguridad y salud de las obras promovidas por el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.

b) Plazo de ejecución: Dos años.

3. Tramitación, procedimiento y forma de adjudicación.

a) Tramitación: Normal.

b) Procedimiento: Abierto.

c) Forma: Concurso.

4. Presupuesto base de licitación: Importe total: 1,00 euros IVA incluido.

5. Garantía provisional: No se exige garantía provisional.

6. Obtención de documentación.

a) Lugar: "Fotocopisteria ARCO en la calle San Antonio nº 16, 01005 Vitoria-Gasteiz – teléfonos: 945-232813 y 945-140678, fax: 945-140678 de lunes a viernes en horario de 9 a 13:30 horas y de 16:00 a 19:30 horas".

b) Fecha límite de obtención de documentos e información: "Hasta la fecha límite de presentación de proposiciones".

c) Gasteizko Udaleko Kontratazio Zerbitzuan aztertu ahal izango da dosierra –Eduardo Dato kalea, 11-5. solairua; Gasteiz; tel.: 945-161154, faxa: 945-161780–, iragarkia ALHAOn agertu ondorengo lehen lanegunetik hasi eta eskaintzak aurkezteko epea bukatu bitartean.

Helbide honetan ere aztertu ahal izango da: <http://www.vitoria-gasteiz.org/>

7. Kontratataren berriazko betekizunak:

a) Saikapena, beharrezkoa bada (taldea, azpitaldea eta kategoría): ez da beharrezkoa.

b) Ekonomi, finantza, teknika eta lanbide kaudimena: “ikus administrazio baldintzen orria”

8. Eskaintzak edo parte hartzeko eskabideak aurkezteko.

a) Epea: 15 egun natural, hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik. Azken eguna larunbata edo jaieguna egokitzuz gero, hurrengo lehen lanegunera arte luzatuko da epea.

b) Ordutegia: 08:30etik 13:00etara, astelehenetik ostiralera.

c) Posta bidez igortzea: Administrazio Publikoaren Kontratuaren Legearen Araudi Orokorren 80.4. artikuluan adierazitako moduan egin ahal izango da. Postaz bidaliz gero, 945-161398 fax zenbakira igorri beharko da horren jakinarazpena.

d) Aurkeztu beharreko agiriak: ikus administrazio baldintzen orria.

e) Aurkezteko tokia: Gasteizko Udaleko Erregistro Nagusian –Espainia plaza 1, behea– aurkeztu beharko dira eskaintzak.

f) Lehiatzaileak eskaintzari eutsi behar dion epea: 3 hilabete.

g) Aldaerak onartzea:

Ez da aldaerarik onartuko.

9. Eskaintzak irekitzea:

B gutun-azalak (jarduteko gaitasuna, ekonomi, finantza, teknika eta lanbide kaudimena eta behin-behineko bermea) jendaurrekoa izango ez den ekitaldian zabalduko dira, udaletxean, eskaintzak aurkezteko epea bukatu ondoren lanegun egokitzen den lehen asteazkenean, goizeko hamaika eta erdietan (11:30).

A gutun-azala (eskaintza ekonomikoa eta agiri teknikoak) jendaurreko ekitaldian zabalduko dira, udaletxean, B gutun-azalak zabaltzen diren egun bereko hamabiak eta laurdenetan (12:15) (edo lanegun egokitzen den hurrengo lehenengo asteazkenean).

10. Bestelako argibideak:

11. Iragarkien gastuak: esleipena egokitzen zaionaren kontura joango dira.

Vitoria-Gasteizen, 2008ko otsailaren 21ean.– Kontratazio Zerbitzuko burua, MARÍA DEL MAR SAGARDOY BRIONES.

## VITORIA-GASTEIZ

### INGURUMENA

1180

**Udal ordenantzetan aurreikusitako arau-hauste izan daitezkeenak direla eta, dosier zigortzaileak abiaraztea.**

Tokiko Gobernu Eraberritzeko Neurriei buruzko 57/2003 Legearen aurreikusitako eskumenak baliaturik –Tokiko Gobernu Batzarrak 2007ko ekainaren 20ko erabakiaren bidez beraren gain utzitako aginpidea dela medio–, Ingurumen Arloko zinegotzi ordezkariak udal ordenantzetan jasotako arau-hausteak direla eta, behean adierazten diren dosier zigortzaileak abiaraztea erabaki du.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/92 Legearen 59-4 eta 61. artikuluetan ezarritakoaren arabera, ebazpenaren jakinarazpena iragarki honen bitartez egiten da, adierazitako dosier zigortzaileak jakinarazteko saioak alferreko gertatu baitira.

Interesdunek, zuzenean edota azaroaren 26ko 30/92 Legearen 32. artikuluan jarritako baldintzak betetzen dituen ordezkari baten bitartez,

c) Los expedientes podrán ser examinados en el Servicio de Contratación del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, sito en la calle Dato nº 11-5ª planta. teléfono 945161154, fax 945-161780 desde el día hábil siguiente a aquél en que aparezca en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Alava y hasta el plazo de presentación de proposiciones.

Asimismo también podrán ser consultados en: <http://www.vitoria-gasteiz.org/>

7. Requisitos específicos del contratista.

a) Clasificación, en su caso (Grupos, Subgrupos y Categoría): No es necesaria.

b) Solvencia económica y financiera y solvencia técnica y profesional: “Ver pliego de condiciones administrativas”.

8. Presentación de las ofertas o de las solicitudes de participación.

a) Fecha límite de presentación: En el plazo de 15 días naturales contados a partir del día siguiente a su publicación en BOTHA Si el último día fuera sábado o festivo se trasladará al siguiente hábil.

b) Horario de 8:30 a 13:00 horas de lunes a viernes.

c) Envío por correo: En las condiciones establecidas en el artículo 80.4 del Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas. El número de fax al que se debe remitir el anuncio de envío por correo es el 945-161398.

d) Documentación a presentar: “Ver pliego de condiciones administrativas”.

e) Lugar de presentación: “Las proposiciones deberán ser presentadas en el Registro General del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, sito en la plaza de España, 1 bajo”.

f) Plazo durante el cual el licitador estará obligado a mantener su oferta: 3 meses.

g) Admisibilidad de variantes:

No serán admitidas ningún tipo de variantes

9. Apertura de las ofertas:

La apertura del sobre B (capacidad de obrar, solvencia económica, financiera y técnica o profesional, garantía provisional) tendrá lugar en la Casa Consistorial, en acto no público, a las once horas y treinta minutos (11:30 horas) del primer miércoles hábil siguiente al día de terminación del plazo de presentación de proposiciones.

La apertura del sobre A (proposición económica y documentación técnica) tendrá lugar en la Casa Consistorial, en acto público, a las 12 horas 15 minutos (12:15 horas) del mismo día de la apertura del sobre B (o el siguiente miércoles hábil al de la apertura del sobre B).

10. Otras informaciones:

11. Gastos de anuncios: Serán por cuenta del adjudicatario.

Vitoria-Gasteiz, a 21 de febrero de 2008.– Jefa del servicio de contratación, Dª MARÍA DEL MAR SAGARDOY BRIONES.

## VITORIA-GASTEIZ

### MEDIO AMBIENTE

1180

**Incoación de expedientes sancionadores que pudieran ser constitutivos de infracción prevista en Ordenanzas Municipales.**

Por resolución de la Concejala Delegada de Medio Ambiente, en uso de las atribuciones conferidas por la Ley 57/2003, de medidas de modernización del Gobierno Local, y de conformidad con la delegación otorgada por acuerdo de la Junta de Gobierno Local de 20 de junio de 2007, se ha resuelto incoar los expedientes sancionadores que se relacionan por infracción a Ordenanzas municipales.

De conformidad con lo establecido en los artículos 59-4 y 61 de la Ley 30/92 de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico y del Procedimiento Administrativo Común, se realiza la notificación mediante este anuncio al haberse intentado sin efecto la notificación de la incoación de los expedientes sancionadores relacionados.

Los interesados directamente o por medio de representante que cumpla los requisitos exigidos en el artículo 32 de la Ley 30/92, de

dosierak aztertu ahal izango dituzte Udaleko Ingurumen Sailean (San Prudentzio kalea, 30-1. solairua) jendaurreko ordutegian.

Interesdun orok horren berri izan dezan eta guztientzako jakinarazpen balioa izan dezan argitaratzen da, ohartarazpen hauek eginda:

1.- Prozeduraren instruktorea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoen zigortzeko ahalmenari buruz diharduen otsailaren 20ko 3/1998 Legearen 29. artikulua idotik, Ingurumen Saileko arlo juridikoko teknikari bat izango da dosier zigortzailearen instruktore, zein azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 28.2. artikuluan aurreikusitako moduan errefusatu ahal izango baita.

2.- Alegazioak.

Iragarkia argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta, hamabost egun izango dira alegazioak, frogak eta egoki ikusten diren justifikazioak aurkezteko. Epe horretan bertan, hala nahi izanez gero, dosierra aztertzerik ere izango da.

Jakizu ezen, abiarazitako prozeduraren edukiaren inguruko alegaziorik aurkezten ez baduzu adierazitako epean, abiaraztea ebazpen-proposamentzat jo ahal izango dela.

3.- Baliabideak.

Dosier zigortzailea abiarazteko probidentzia hau tramite egintza da; beraz, ezingo da errekurtsorik aurkeztu berorren kontra.

Dosiera: 2007/limotr00831; Salatu: Ervin Daniel Albornoz Montes; Data: 2007/12/02; Hautsitako artikulua: Garbiketari eta hondakinen bilketa zein garraioari buruzko udal ordenantzaren 147.1 j) art.; Abiarazte data: 2008/01/03; Izan dezakeen kalifikazio juridikoa: arau-hauste arina, ohartarazpenarekin edo 90 eurotik 750era bitarteko isunarekin; Instruktorea: Arantza Sáez de Cerain Guevara

Dosiera: 2007/limotr00836; Salatu: Javier González Lobo; Data: 2007/09/28; Hautsitako artikulua: Garbiketari eta hondakinen bilketa zein garraioari buruzko udal ordenantzaren 149.2 d) art.; Abiarazte data: 2008/01/04; Izan dezakeen kalifikazio juridikoa: arau-hauste oso larria, 1.501 eurotik 3.000era bitarteko isunarekin; Instruktorea: Arantza Sáez de Cerain Guevara;

Vitoria-Gasteizen, 2008ko otsailaren 14an.- Ingurumen Arloko zinegotzia, ALBA CAÑADAS MORA.

## VITORIA-GASTEIZ

### HIRIGINTZA

#### *Plangintza eta Hirigintzaren Kudeaketa*

1220

**Ariniz 2 gauzatze unitatearen urbanizazioa, hitzarmen batzarren sistemaren bidez, gauzatze hitzarmena jendaurrean jartzea, eta eratu den Hitzarmen Batzarreko estatutuen hasierako onepena.**

